

## Fitch agentziak A- kalifikazioa eman die Kutxabanken gordailuei

- Fitchek Kutxabanken ratingak berretsi ditu, bere metodologia berriki eguneratu ostean
- Agentziak Erakundearen kaudimen-gaitasun trinkoa, frankiziaren sendotasuna, aktiboen kalitatea hobetu izana, sarrerak sortzeko gaitasun egonkorra eta likidotasun egoera ona goretzi ditu

**2020ko martxoaren 10ean.** Fitch nazioarteko kalifikazio agentziak bere metodologia oraindik-orain eguneratu ondoren Kutxabanken rating guztiak berretsi ditu, eta Kutxabank Taldeko gordailuei A- bikaina eman die.

Honela, Kutxabanken ratinga Estatuko finantza-sistemako onenen artean mantentzen du Fitchek, eta gordailuen kalitatea bikain mailara igo du, merkatuetan lurrunkortasuna nagusi den egoera honetan.

Bere azterketan Fitchek nabarmendu dituen gaien artean daude finantza-taldearen kaudimen maila garaia, bere lehiakideena baino hobea, eskakizunei aurre egiteko duen kapital-koltxoia, eta palankatze ratioa. Horrez gain bere jatorriko merkatuetan, Euskadin eta Kordoban, Kutxabanke duen lidergoa goraiatu du, bai eta ondareak, pentsioak eta aseguruak kudeatzeko negozioaren indarra ere. Honekin guztiarekin sarreraren egonkortasuna eta dibertsifikazioa bermatzen ditu, interes-tipoak oso baxuak diren testuinguruan.

Kutxabanken bilakaerari buruz eman dituen argudioen artean, Bankuaren aktiboen arriskuek hoberako izan duten joera nabarmendu du Fitchek, bere lehiakideekin alderatuta zalantzazko aktiboak murriztagoak baitira.

Agentziak ikuspegi egonkorra ematen die kalifikazioei.

2015 urteaz geroztik euskal finantza Taldearen mailegu-kalifikazioak etengabe hobetu dira. Honela, egoera hobea du epe ertainean erregulazioa betetzeko sor litezkeen beharrei erantzuteko handizkako merkatuetara finantzazioa bilatzera joan behar duenean. Horren erakusle da Non Preferred Zor Seniorrean oraindik orain egin zuen 500 milioi euroko jaulkipena, gaur egun merkatuetan bere antzeko jaulkipenek baino kotizazio hobea duena.

Rating agentzien aintzatespen hau ikuskatzaileek eta arau-emaileek Kutxabank Taldearen arrisku profilari buruz eman duten balorazio positiboari gehitu zaie. Joan den abenduan,

Europako Banku Zentralak SREP eskakizuna alorreko txikienen artean mantendu zuen bigarren urtez jarraian. Azaroan Europako Banku Zentralak eginiko gardentasun ariketan, Estatuko kaudimen onena zuen erakundea izan zen Kutxabank, bostgarren urtez jarraian.

JUR Erresoluzio Batzorde Bakarrak ezarritako MREL erregulazio-eskakizun berriak ere eman ziren jakitera 2019an. Kutxabankek Espainiako finantza-sistema osoko eskakizun onenetako bat jaso zuen, %19,5ekoa, batzorde honek Bankuaren erresoluzio estrategiei eta arrisku profilari buruz duen ikuspegi positiboaren erakusle.

---